


IGARTUBEITI FAMILIAN. HEZKUNTZA PROIEKTUA



KAIXO, ONGI ETORRI!

Igartubeitin **adin goiztiarretatik** hasita, ondarearekiko sentsibilizazio eta errespetu guneak sortzea eragiten duten zenbait jardueren bitartez, bereziki **familiekiko** harremanean eta loturan lan egiten dugu. Hurbileko eta famili giroaren bitartez eta lengoai ezberdinen bitartez, txikitxoek beraien ingurunea ikuskatzen ikasten dute, era berean ingurunearekin elkar eraginez, beraien jakin-mina eta sormena piztuz.

NOLA? ARTEA + JOLASA + IKASKETA= PARTE HARTZEA

Arte eta **jolas adierazpenetik**, **jolasa** sorkuntza prozesuetan integratuz, parte hartze, komunikazio, hausnarketa eta esperimantazio guneak sortzen ditugu.

Ondarearen ikuspegi zabaletik abiatuz: kultur, natur ondarea baita materia gabea, soinu-ondarea... ere Gure ingurunearekiko harremanen eta **behaketa aktiboaren** garrantzia azpimarratzen du.

ZERGATIK?

Ondare hezkuntza artistikoa irekia dagoen bide bat da, tekniken, prozeduren, sorkuntzaren eta zentzumen pertzepzioen bitartez. modu aktibo batean ingurunearen ulermen, ikusmen eta entzumen formekin lotzen dituzten prozesuez osatua dagoena.

Gainera...

-Adierazpen tresna gisa, **artearen eta jokuaren** bitartez, pertsonen eta gizartearen eraldaketaren sorkuntza ahalmenak sustatzen ditugu.

-Arteak eta bere sormen prozesu ezberdinek **ideiak uztartzen** eta norbanakoaren ahalmenetik abiatuz hausnarketak sortzen laguntzen gaituzte, **autonomia eta ahalmen kritikoa** sustatuz.

-Arteak beste lengoaien bitartez **esperimentatzea** ahalbidetzen digu. **Errealitate berriak imajinatzen** zein sortzen laguntzen gaitu, existitzen direnak birplanteatzen, galderak, akatsak eta frogak eginez, erabakiak hartzen ere lagunduz.

ZE GAI LANTZEN DITUGU?

Kultur ondarea: materiala, materia gabea / Kultura garaikidea eta bere adierazpen ezberdinak: arte-bisualak, literatura, animazioak, arte eszenikoak...
/ Natura / Paisaia eta nekazal mundua/ Baserriaren Mundua: giza harremanak, arkitektura / Euskal kultura, euskara / Ingurugiro eta jasangarritasuna / Historia / Beste kulturak.

NOLA EKITEN DIEGU GAIEI?

Tailerrak eta saioak **zuzenduak** daude:

- Familiei hurrekin. Famili tailerra. (3 urtetik aurrera)
- 6tik 12 urte bitarteko haurrak. Tailer bakoitzean gomendagarria den adina zehazten da.

12 urtetik aurrerako proposamenetan lanean dihardugu.

- 12 urtetik aurrerako proposamenetan lanean dihardugu.





NOLA PARTE-HARTU DEZAKET?



**PROIEKTU HONETAKO PARTAIDE GISA, ZURE
PARTE HARTZEA INTERESA ZAIGU!**

**ETOR ZAITEZ, JOLASTU, SORTU, PARTEKATU ITZAZU ZURE
IRUZKINAK ETA IDEIAK...**

PARTE HARTU, ZUK ERABAKI NOLA!

MILA ESKER!